

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urriaren 3a / 644. zenbakia

# MARITXU KAJOI



\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*



ORAIN ETA HEMEN: OSOKO BILKURA/9 • KULTURA: ZAHAR BERRI, EUSKALDUN ZAHAR BILA/19



*Eraman plazerra  
zure etxera*

 **gelatzu s.l.**  
Zubillaga auzoa 1 • OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51



**ALDEDI**

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

## KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Aitta Santuek jubiletako eskubiderik ez eukittie?



**ISABEL BARRENA**  
Jubilaue

Burue ondo daukon bittartien, ez dot txarto ikusten. Oin, argi dauena da Aitta Santue oso kantsaute daue-la eta ibiltten dan moduen ibilltie ez dala normala. Hori ez dot ondo ikusten.



**FELI GONZALO**  
Jubilaue

Nik ez dot bape ondo ikusten. Neure ustez, Aitta Santue erretirau egin biherko litzake. Sasoi onien egongo balitz ez neuke ezer esango, baiñe Aitte Santue ez dau ondo, zahartute dau.



**PATRICIO GARCIA**  
Langillie

Nik uste dot Aitta Santue erretirau egin biherko litzakeela, berbarik be ezin dau egin-eta. Egoera horretan dauen pertsona bat eukittie atzerapausue da. Ordezko bat topau biherko leukie.



**CARLOS GARRO**  
Jubilaue

Pertsoniek kapaza dan artien egin biher dau lan, eta Aitta Santue ez da bere lana egitteko gauza. Izen be, zahartute dau, eta erretirau egin biherko leukie, txarto dau-eta.



**IÑAKI VAZQUEZ**  
Langillie

Gai horretan ez naz larregi sartuko, baiñe telebisiñuen ikusten doten bakotxien penie emuten dust. Neure familixakue izengo balitz, ez neuskio itxiko telebisiñuen urteten.



**VICENTA BENGOA**  
Jubilaue

Neuri ez jat bape ondo pentsetan. Gaiñera, egitten dittuen biajiek kalte besterik ez dutzie egitten. Dauen moduen egonda, pakien itxi biherko leukie, deskantsau daixela trankil.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ZABORRA, EDUKIONTZITIK KANPO** Zaborra batzeko edukiontzia ipini zituztenean, hainbat herritar horretaz kezatu ziren; orduan salatu egin zuten, baina arazoak bere horretan jarraitzen du. Irakurle batzuek aditzera eman digutenez, hainbat herritarrek zaborra ez dagokion orduan ateratzen dute. Horrez gain, batzuek zaborra edukiontzietatik kanpo uzten dute. Lotsagarria dela diote.

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /10

KIROLA/17

KULTURA /19

#### Euskara saltokietan

Saltokietan euskara bultzatze-ko kanpainaren harira, Beatriz zapata dendakoe-kin elkarrizketa.

#### Liderraren kontra

Mondrak Real Union liderraren kontra neurtuko ditu indarrak oraingo aste bukaeran.

#### Eguenetako zinekluba

Udaleko Kultura Sailak eguenetako zinekluba jarri du abian. Urriaren 9an emango dute lehenengo filma.

### ASTEKODATUA

# 25

#### EUSKALDUN ZAHAR BEHAR DITU ZAHAR BERRIK

AEDk eta herriko euskaltegiek kudeatzen duten Zahar Berrik gutxienez 25 euskaldun zahar behar ditu. Zahar Berrik euskaldun berriei eskolaz kanpo euskaraz berba egiten laguntzen die.

### BESTEKEESANA

“Udan sarritan izan naizen arren, ia hilabete neraman Olarizuko gurutzera igo barik. Eta atzo eta gaur goizean higuigarri iritzi diot han ikusitakoari: botilak, plastikoak, latak, paperak, kartoioak... han eta hemen. Ez tontorrean bakarrik, bidexken inguruetan ere bai. Zenbait pertsonaren naturarenganako maitasun eta begirune eza handia da oraindik. Hori jakinekua zen, dena dela. Baina zinez ulertzen ez dudana da zer egiten duen Gasteizko Udalak. Normalena garbiketala-lana Olarizuko jaiaren biharamunean berean egitea zen. Bizpahiru lagunek hiruzpalau ordutan aise burutzekoa. Zer da eskas duena, gaitasuna, borondatea? 11 egun jada Olarizuko festa egin zenetik. Eta inguru guztia zikinkeriaz josia. Ahalgingarria!

TXIPI ORMAETXEA  
'GARA'/03-09-30

### HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



*Suediak, euroari ezetza*

Iraileko lehenengo astean, euroaren aldeko kanpainan, Suedian egon nintzen. Gobernuak, erakunde sindikalek, enpresa gizonak, ia alderdi politiko guztiek euroaren aldeko kanpaina bideratu dute. Eta Suediako herritarrek euroari ezetza eman diote. Herri jantzia eta gizabidezko kultura handia duena da; suediarrek euren kontu pentsatzen dutela erakutsi digute.

Jarrera horren gakoa Suediaren historian aurkitu beharko genuke. Suediarrek monarkia eta feudalismoa ezagutu zuten, baina ez muturrekoa. XIII. mendean gizabana-koen eskubideak eta emakume-ek onordetzarako zeuzkaten eskubideak arautu zituzten.

Suediarrak inperialistak izan ziren, baina ez muturrekoak. Trauma nazional handi barik eta indarra erabili barik, Norvegiako independentzia onartu zuten. Baina, suediarrek Luterok egindako erreforma protestantea egin zuten, eta Jaungoikoarekin hitzarmena

norberak dauka. Luteranoak direnez, harmoniaren kontzeptua denetarako erabiltzen dute. Stockholmeko hirigintzak harritu egin ninduen. Hasierako etxeak mantendu dituzte eta gero egindakoa, ondo eginda, datorren belaunaldietara begira eraiki dute. Stockholmeko hiria

hiru zatitan banatuta dago: lehena, ura; bigarrena, basoa; eta eraikuntzak, hirugarrena. Ekosistema zaindu dute eta oreka mantendu gura dute. Hori da garapen jasagarria.

Suediar gizartea kapitalista da, baina ez muturrekoa.

Ikasleek, langabetuek eta zaharrek laguntza sozialak jasotzen dituzte. Suediako legebiltzar erdia baino gehiago emakumeak dira; etxebizitza eskuratzeko laguntza handiak daude; hazkunde demografikoa bermatzeko aitak edo amak urte eta erdiko lanuzte ordaindua dauka... Suediarrek historian txertatutako nortasun horri eusten diote eta euroari ezetza eman diote. Euskal Herritarrok badaukagu hemen ere zer ikasi.

“Suediarrek euren nortasunari eutsi diote eta euroari ezetza eman diote. Euskal Herritarrok badaukagu hemen ere zer ikasi”

# Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran  
ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
MAKETAZIOA  
Alex Azkarate  
ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martinez  
Imanol Elortza  
ADMINISTRATIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia  
LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88  
ISSN  
0214-4654  
TIRADA  
7.350 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 3**  
Español. Araba etorb. 17 . . . . . 943 79 18 65
- ZAPATUA, 4**  
Azkoaga. Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15
- DOMEKA, 5**  
Azkoaga. Iturriotz . . . . . 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 6**  
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 . . . . . 943 79 22 26
- MARTITZENA, 7**  
Iñizar. Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 8**  
Amezua. Santamaina 32 . . . . . 943 79 09 74
- EGUENA, 9**  
Zabala. Zarugalde 42 . . . . . 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 10**  
Ruiz. Maala 31 . . . . . 943 79 14 09

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea . . . . . 943 03 53 00  
Iguatorialdea . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11
- LARRIALDIK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . . . egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44
- ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99
- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088
- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44
- GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

- MEZAK**
- San Joan parrokia**  
Zapatua  
19:00 (elebiduna)  
Domeka  
09:00 (gaztelaniaz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**  
Zapatua  
19:00 (elebiduna)  
Domeka  
10:00 (elebiduna)  
11:00 (euskaraz)  
12:00 (gaztelaniaz)  
13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**  
Zapatua  
19:00 (elebiduna)  
Domeka  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (gaztelaniaz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (gaztelaniaz)  
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**  
Zapatua  
19:00 (elebiduna)  
Domeka  
11:00 San Isidron (euskaraz)  
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**  
Jaiegun bezpera eta zapatua  
19:00 (gaztelaniaz)  
Domeka  
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**  
Zapatua  
19:00 (elebiduna)  
Domeka  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**MASAJEA ETA YOGA**  
Arrasate Yoga elkarteak hastapeneko yoga eta masaje ikastaroak antolatu ditu. Biak hala biak hasita daude, baina oraindik eman dezakezu izena. Deitu honako telefonoetara: 943 79 20 85 edo 943 79 66 98.

**EGUENETAKO ZINEKLUBA**  
Eguenean, urriaren 9an, *Historias minimas* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

**AUTODETERMINAZIOA**  
Eguaztenean, urriaren 8an, Pedro Albitek *Autodeterminazioa eta inmigrazioa* berbaldia egingo du. 19:30ean izango da, Monteironen. Mondragoetarrak taldeak antolatu du.

**GAZTE KRISTIAUK**  
15 eta 16 urteko gazteei dei egin diete urriaren 10ean, egubakoitza, abadetxean egingo den bilerara joateko.

**1952AN JAIOTAKOAK**  
1952an jaiotako emakume eta gizonek urriaren 11n, urteroko ospakizuna egingo dute. 1952an jaiotako hildakoengatik meza egingo dute San Juan Bautista elizan, 12:30ean. Mezaren ondoren, Herriko Plazan elkartuko dira. Horren ostean, 14:30ean, Hilarion jatetxean bazkalduko dute.

**AEDren AGENDA**

**AED-KO BERTSO ESKOLA**  
AEDko Bertso Eskolak ikasturtea hasi du. 9 eta 12 urte arteko ibarreko neska-mutikoei AEDko bulegoan eman behar dute izena, urriaren 15a aurretik. Matrikula 30 euro izango da, urteko. Egubakoitzero batuko dira AEDren egoitzan, 17:00etatik 18:30era. Informazio zabalagoa 943 77 12 28 telefonora deituta.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Bergarako Fagor Arrasatera ekarri zuten**


Fagor Etxetresna Elektrikoak Kooperatibaren Bergarako lan-tegia desantolatzeko eta husteko asmoa zuen Fagorrek. Aditzera eman zuten, neurriak ez zuen ekoizpen aldaketarik edo lan murrizketarik ekarriko, Bergarako muntaia lerroak Arrasatera ekarri gura zituztelako.




**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Koskortu"*

Dezente hazi, handitu. Umeez, batik bat. —Zuek umiak koskortuta duakazute. —Puxka bat koskortu arte ezkiñan gu Bergara sekula bajau.



**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**"Umea etxean bertan izan dut"**

Nuria Fernandez de Arroiabek etxean bertan izan du umea, berak hala erabakita. Joan den zapatuan izan zuen umea Aretxabaletan, etxean, eta esperientzia horren berri eman digu Arrasate Irratian. Zapatuan eta domekan izango duzue elkarrizketa hori entzungai, 11:00etan.

Arrasateko alkateari, Inazio Lakuntzari, egindako elkarrizketa ere errepikatuko dugu, baita Goiena Telebistako lankide Goiatz Aranari egindakoa ere.



**Astelehenetik aurrera, eguerdira arte**

Astelenean, urriaren 6an, udazken-neguko saioei ekingo diegu. Hori dela eta, 12:00ak arte izango dira zuzeneko saioak. Hainbat tarte estreinatuko ditugu datorren astetik aurrera herriko irratian.

Gaur, berriz, 20:00etan zuzeneko saioa egingo dugu Mari-txu Kajoi eguna dela eta. Udal-letxean izango gara, eta kalean ikusten dugun guztiaren berri emango dizuegu. Elkarrizketak eta musika ere izango dira.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguena, 25	<b>8 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguena, 25	<b>31 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>12,1 L</b>
	Max. Min. Euria
<b>Eguaztena, 24</b>	23 °C 13 °C - l/m²
<b>Eguena, 25</b>	31 °C 8 °C - l/m²
<b>Egubakoitza, 26</b>	24 °C 13 °C 0,3 l/m²
<b>Zapatua, 27</b>	24 °C 15 °C 1,1 l/m²
<b>Domeka, 28</b>	20 °C 17 °C 4,4 l/m²
<b>Astelehena, 29</b>	24 °C 15 °C 3,2 l/m²
<b>Martitzena, 30</b>	22 °C 13 °C 3,1 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Nuria Fernandez de Arroiabe; Inazio Lakuntza; Goiatz Arana; Ekain Zubizarreta eta Jone Karrera, Kolonbiaren inguruan, Josemari Velez de Mendizabal, atera berri duen liburua; Mikel Olabe, Ekologistak Martxan taldeko partaidea...
- DOMEKA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 **Albistegia:** Albistek eta elkarrizketa.  
10:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**  
10:06 **Igo Autobusera** magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak, abokatu, dietista...  
11:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**  
11:06 **Igo autobusera** magazina: sukaldeak, literatura, musika, kontu-kontari, hileko galdera...  
11:30 **Arrasate Irratiko albistegia.**  
11:40 **Igo autobusera** magazina: azoka plaza, zorion agurrak...  
12:00 **Euskadi Irratiko albistegia**  
12:06 **Izarren ordua:** abesti ezagunekin osatutako musika tartea.  
13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**  
14:00 **Goizeko saioaren errepikapena.**  
17:00 **Izarren ordua.**  
19:00-21:00-23:00 **Albistegi laburra.**

## ASTEABIHITZETAN

### Istripu larria Udalatzen

Yagoba Garcia, 18 urteko mendizalea, hil egin zen eguen arratsaldean Udalatzen. Mondragon Unibertsitateko ikaslea zen, eta Ingeniaritza ikasketak hasi berri zituen. Istripua arratsaldeko bostetan izan zen. Bost lagunek osatutako taldea tontorretik gertu zegoenean, taldeko bat, Yagoba Garcia algortarra, 30 metrotik behera erori zen.

Erreskate taldeak eta anbulantziak Udalan elkartu ziren. Medikua, ostera, helikopteroan eraman zuten Udaltxera. Lehenengo zainketak bertan egin zizkion, eta gero, Galdakaoko ospitalera eraman zuten. Oso zauri larriak zituen gazteak, eta 21:30ean hil egin zen.

### Edurne Pasaban Emakume Txokoan

Eguen arratsaldean Edurne Pasaban mendizaleak *Emakumea eta mendia* izenburuko hitzaldi arrakastatsua egin zuen Emakume Txokoan. Hitzaldia Arrasateko Emakume Txokoaren aurkezpen ekitaldia izan zen.

Mondragoetar asko izan ziren hitzaldian, eta Edurne Pasabaneke, besteak beste, orain arteko espedizioetan izan dituen bizipenen gainean egin zuen berba. Izan zuen zer kontatu, dagoeneko sei zortzimilako egin ditu-eta Edurne Pasabaneke.

### Azken urteotako txakolin onena

Egihandi baserriko Javier Arregi ibarreko txakolin ekoizle-  
etako bat da. Javierren esanetan, aurtengo txakolina azken urteotako onena izango da. Santamasetarako jarriko ditu Javier Arregik Kataide markako aurtengo aurreneko txakolin botilak. Mahatsa bilduta eta kupeletan sartuta du dagoeneko; normalean baino hilabete lehenago batu behar izan du mahatsa, aurtengo uda beroa izan da-eta. Oso kalitate oneko txakolina izango ei da aurtengoa.



### Susto galanta Uriburu kalean

Susto galanta izan zuen domekan Uriburu kaleko bizilagun batek. Janaria prestatzen zebilela lo hartu zuen, eta kazola erre egin zen. Kazolak eragindako ke mordo zela-eta, berehala azaldu ziren ertzain, udaltzain eta suhiltzaileak. Zorionez, susto handi bat baino ez zen izan.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

## Ganorazko garraio publikoa

Gure ibarretik kanpo, Elgoibarren zehazki, asteburuan gertatutako jazoera bat gogora etorri zait. Zapatu gauean ehunka gazte trenaren zain zeuden, eta trena heldu zenean berau hartu guran bata besteari bultzaka hasi ziren. Bi gazte trenbidera jausi eta trenak harrapatu egin zituen. Ez dira hil, baina zauri larriak dituzte.

Halako gertaera tamalgarrria jazo izanaren arrazoietako bat da garraio publikoa eskasa dela, are gehiago gure ibarreen. Gertuagoko adibide bat ematearren, ibarreko herritarrek urteotan gaueko garraio publikoa eskatu dute. Azkenean, PESAk ipini du, baina oraindik badu zer hobetu. Esaterako, joan den asteburuan, Oñatiko San Migeletan, Arrasatera

bueltatzeko hiru autobus ipini zituzten: 01:00etan, 04:00etan eta 07:00etan. Ez da harrizkoa gazte gehienek 04:00etako hartu gura izatea. Geltokian, autobusean sartzen diren baino lagun gehiago batu ziren, eta autobusa heldu zenean, denak, korrika, sartu ezinka. Zerbitzu horiek gauez autoen erabilera mugatzeko ipintzen dira, eta guztiz zentzuzkoa dirudi zerbitzua ganoraz ematea, beharrezkoak diren autobus guztiekin.

## ASTEKOIRUDIA



URBANE MADERA

### ESPAINIAKO LOTERIAKO SARI NAGUSIA ARRASATEN BANATU ZUTEN

Ruiz de Alegria administrazioak Espainiako Loteriako sari nagusia eman zuen joan den zapatuan, hilaren 27an. Hain justu, 51.788 izan zen zenbaki saritua, eta zenbaki horren hogeitazko saldu zituzten. Guztira 1.200.000 euroko (200 milioi pezeta) saria. Ez da lehenengo aldia administrazio horrek lote-

riako sariak banatzen dituen, eta poza eta jakin-mina nagusitu ziren herrian. Poza halako saria herrian gelditu delako eta jakin-mina milioiak jaso dituztenak zeintzuk diren jakiteko.

Hemen beste leku batzuetan baino diru premia txikiagoa izan arren, poztekoa da saria jasotzea. /I.B.



**Edertu**  
Ile apaindegia • Solariuma

San Andres auzoa Tel.: 943 79 04 28  
**ARRASATE**

**S. CARRASCAL S.L.**

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82



**Comercial**  
**ARPE**

Alda ezazu zure orrazkera!

Kontzezino 4 - behea  
**ARRASATE**  
Tel.: 943 79 78 09

# Maritxu Kajoi: era guztietako herritarrak jaira batzen dituen ezohiko jai arrakastatsua

I.B.

Maritxu Kajoi jaiak 27. urteurrena ospatuko du gaur, egubakoitza. Hasieran, 1977an, herritar talde batek jaiak sortu zuenean oso gauza xumea zen, baina urterik urte handituz joan da eta izugarriko tamaina hartu du. Azken urteetan herriko kaleetan jende mordo batzen da, eta beste herri batzuetatik dotore jantzitako autobuskada gazte etortzen dira. Bitxia da autoetatik eta autobusetatik gazteak dotore jantzita jaisten ikustea. Jaiaren barnera- zkeko asmoarekin etortzen dira.

Bestalde, batzuen ustez gehiegizkoa da jai horrek hartu duen masifikazioa, baita hainbat herritarrek euren burua dotore ipintzeko egiten duten gastu erraldoia ere. Jaiaren izpiritua zelanbait dotore jantzea zen, baina horretarako aitona-aren edo bestelakoen arropak jantzea nahikoa zen. Txintxo ibili eta ondo pasatu!

ARGAZKIAK: ARRASATE PRESS

*Maritxu Kajoiaren mirari handiena da jaiari urtetan eustea eta halako ospea hartzea*




Mutilek eta neskek gogoz apaintzen dute euren burua gau berezi horretarako.



Txikienek ere jaiaren parte hartu gura izaten dute.



Herriko tabernariak ere dotore-dotore jantzi behar izaten dute, jakina.



Eskapularioak erostea derrigorrezko eginbeharra da.



Urteko beste egunetan ez bezala, egun berezi horretan herritarrak gustura ipintzen dira argazki kamera aurrean.



Herriko koadrila batzuk urtean elkartzen diren egun bakarrenetarikoa izaten da hori.



Maritxu Kajoiaren liburua aurkeztu zutenean, elurra egin zuen.



Koadrila horrek afaltzera joan beharrean elkarrekin bazkaltzeko ohitura hartu zuen aspaldi.



Urtero-urtero, auto dotore hori ikusten dugu Arrasateko kaleetan.



Herritarrek eta etortzen diren kanpotarrek gustuko dute egun batez dotore janztea.



Eskerrak txosnak jartzen dituztela -argazkian gaztetxekoa-, tabernetan ez gara-eta denok sartzen!

# Kalean asmatutako eta kalean garatutako jai berezia: Maritxu Kajoi

Aurtengo eskapularioak adierazpen askatasuna du ardatz, *Egunkaria*-ren itxiera dela eta

UBANE MADERA

**Beste urtebetez iritsi zaigu Maritxu Kajoi. Eta beste urtebetez, Maritxu Kajoi Komisiñuak guztia gertu-gertu dauka txikiteroen ama omentzeko: jaiaren nondik norakoak eta, jakina, baita miraria ere. Aurten zer egingo duten? A! Maritxutara etorri behar!**

Etiketajantziak gertu ipini, ile apaindegirako txanda hartu, soinekoa konpondu, lantokian arratsaldea libre eskatu, bazkari-afarietarako lekua hartu...

Aspaldi dabil jendea Maritxutarakoak prestatzen, arrasatearrak eta arrasatear ez direnak. Izan ere, urte batetik bestera gora egiten du jaiak.

Aurten ez da gutxiago izango, eta gaur iluntzetik aurrera herriko kale eta tabernak bete-bete egingo dira, jendez eta zarataz.

Tartean, iluntze partean plazan batuko da herritar mordoak, aurtengo miraria zein izango den jakinguran (ondoan gordetako sekretua izaten da mirariarena).


Kontuak kontu, dotore jantzi,

eskapulario eta guzti (ezin hori ahaztu), eta kalera ateratzeko jai da Maritxu Kajoi. Jaiaren jatorria kalean dago, txikiteroen artean; eta hala izaten segitu du urte hauek guztietan. Seguru aski, horregatik lortu du horren izen handia hemen eta hemendik kanpo.

Hain justu, Maritxu Kajoiaren izen handiarekin batera, esan beharra dago badirela egun hori horren gustuko ez dutenak. Entzuten diren kritika zorrotzenak dira jendea mozkortu egiten delako eta kalea zarataz betetzen delako. Beste batzuek, berriz, jai eta erlijioa horrela nahastea kritikatu ohi dute.

Argi dago bakoitzak gura duen moduan pentsatzeko eskubidea duela. Eta kritikatzeko. Eta, euren ikuspuntutik begiratuta, seguru aski arrazoiak izango dute.

Edozelan ere, argi dago, gutxi bezala, Maritxu Kajoi jaiaren Arrasateko ohituren artean barru-barruan sartu dela. Eta gutxi bezala (geroago eta gutxiago), herritar mordoak hartzen duela parte jai horretan (adin eta gustu guztietakoak). Gainbehe-



ran ez dagoen gutxienetarikoa jai da, Arrasaten eta inguruan.

Gauzak horrela, ez du merezi haserretzerik. Jaiak gustuko duena dotore jantzi eta kalera aterada dila, ahalik eta ondoen

ibiltzera; bizitza laburra da, eta bizimodua dezente latza.

Eta jaiak gustuko ez duenarentako gomendio bat: amorratuta ibili beharrean, hobe kalera ez bada leihora ateratzea

*Iluntze partean plazan batuko da herritar mordoak, mirariaren zain*

*Gainbeheran ez dagoen gutxienetarikoa jai da Maritxu Kajoi*

*Jaiak gustuko duena dotore jantzi eta kalera aterada dila, ondo ibiltzera*

eta kalean dagoenari begirada bat botatzea. Haserrea albo batera utziz gero, seguru barre egingo duela.



## Maritxu Kajoi 2003

**URRIAK 3, EGUAKOTXA, MARITXU KAJOI (Goixetik goixera)**

**06:00** Egune ederto hasteko, etxalderuek.

**10:00** Herriko parrokiaren kongresue egingo da, "herrixetako jaixen gainbehera" azterketako. Partehartzaile moduen San Migel etorriko da Atxabaltik, Gatzatik Andra Mari, San Martin izengo da Bergarako representantia eta azkenik Oñetittik autobusakara bat santu etorriko da. Moderatzaile lanak On Joxe Mari Astigarragak, **Azkoitiako parrokuak** eingo dittu.

**12:00** Espediziñue Debako hondartzara galipota edo txapa potie batzen; holan, Arrasateko kotxiak duan ibiliko die urtebetien. Galipota Musakolako kanpoko igerilekuetan gordeko da.

**17:00** Ume eta ez hain ume dienendako kale animaziñue egongo da, "Auskalo" musika taldeak.

**19:00** Herriko erraldoi eta kilikixek, Arrasateko gaiteruek lagundute, kaltetako hautsek harrotuko dittue.

**19:30** Gure belarrixek gozatu edarra hartuko daue, bai! Maritxun txarangiak bere makinariak martxan jarriko dau, Txumaik zuzendute.

**20:00** Igez atxabaltarrek jarri euen erresistentzia eskasa ikusitte, aurten be espediziñuek urtengo dau Arbolapetatik Atxabaltako jardinetako lora edarrak harrapetako asmuaz.

**20:30** Datorren urtien "denok gaude" esan daigun eta urte osoko parrandak eskerketako, Mondraueko kuadrillek lora eskaintza egingo dutzie Maritxuri.

**00:00** Dantzaldixe plazan Drindots taldeak. Ordu berien eta Seberon, Luhartz taldeen eskutik, triki berbenie.

**02:00** Arrasateko udaletxiak Saddam Hussein asilo politikue onartu dutzela eta, ongi etorrixe egingo jako honi Sebero plazan. Herriko agintarixek bertan egongo die.

### ABIXUEK

-Eskapulaixue txintxiliek eta dotore jantzitze urteteko ordue heldu da.

-Aurten Maritxu Kajoi komisiñuek telefono bittartezko informaziño zerbitzu bat jarriko dau martxan. Jaixen gañeko argibidiek emungo diez hor; eta eskapularixuek zelan lortu be bai. Telefonue: 943 76 53 40.

-Eta ezin juen gure herriko preso, deportatu eta errefuxiatuekin akordau barik. Laster ospatuko Maritxu danok alkarregaz; bai horixe!



## Gai arruntak eta mozio bi onartu zituzten astelehenerako batzarrean

UBANE MADERA

Oraingo agintaldiko aurreneko ohiko bilkura egin zuten astelehenerako. Gai arruntak ziren nagusi zerrendan, formalismo hutsak. Horrekin batera, udal ordezkariak izendatu zituzten eta EBren bi mozio onartu. Oposizioak gogor ekin zion lanari.

Zinegotzi guztiak azaldu ziren osoko bilkuren aretoan astelehenerako 09:00etan, udalbatzarra eratu zenean, aurreneko ohiko bilkura egiteko. Eta, luze samar jo zuten bilerak, zinegotzietako batzuek berbaldu luzeak egin zituzten-eta. Gainera, Arrasateko dezente urrundu ziren euren berbaldietan. Hain justu, alkateak eten egin behar izan zituen, Arrasateko Udala ez zela Legebiltzarra esaten.

Kontuak kontu, gai zerrendak zituen gai guztiak landu eta onartu zituen udalbatzarra; hori bai, batek baino gehiagok oposizioaren kritika piztu zuten.



Ezker Batuak aurkeztutako mozioek eztabaida luzeak eragin zituzten bileran.

Ander Rodríguez eta Debagoieneko Udal Elkartearen, Luis Etxebarriarteun. Segurtasun eta Osasun Batzordean, Bixente Etxebarria, Agustin Ugarte eta Luis Etxebarriarteun; eta Lanpostuen Balaziorako Kalifikazio Batzordean, Inazio Lakuntza, Bixente Etxebarria eta Joseba Ugalde.

### MOZIOAK

Bestalde, EBk bi mozio aurkeztu zituen eta eztabaida luze eta sakonak sortu ziren haien inguruan. Mozioetako bat Iraken gerraren kontrakoa izan zen. Haren arabera, lege kontrakoa eta nazioarteko legeriaren aurkako okupazio militarra egin dute, eta hori arbuia egiten du. Horrez gain, okupazioan gehiago parte ez hartzeko eskatzen dio Espainiako Gober-

nuari eta irakiarrei elkartzuna adierazteaz gain, aurrekontutik partida bat haiei laguntzeko izatea erabaki dute. PPK ezik gainerakoek mozioaren alde egin zuten.

Beste mozioa hezkuntzaren Kalitate Legearen aurkako izan zen. Mozioaren arabera, lege horrek ez ditu errespetatzen Konstituzioaren eskuduntza batzuk, hain justu, askatasun erlijiosoaren gainerakoak, lege berriak erlijioa ikastea betebeharrak bihurtzen duelako. Hala, besteak beste, erakunde publikoari Udalak eskatuko die oinarritzko eskubideen defentsa egiteko, beharrezko neurri legalekin. Mozioa onartu zen, EAK eta PPK aurka bozkatu zuten; gainerakoek alde. Tartean bi absentsio izan ziren: alkatea eta EAJko Aitor Saez de Azkunaga.

## Irlatxoa egiten dabilta autoen joan-etorria arintzeko

U.M.

Gelma pareko autoen joan-etorria apur bat ordenatzeko asmoarekin, irlatxo bat eraikitzen dabilta asteotan. Horrez gainera, Santa Marina kalearen hasieran dagoen eraikina bota egingo dute laster.

Gelma parean ia egunero auto ilarrak sortzen dira, Santa Marina edo Makatzena auzoetara igo gura duten automobilak direla-eta. Horregatik, etorkizunari begira, Arrasateko Egitamu Orokorrean zehaztuta dute han biribilunea egitea, autoen joan-etorri hori konpontzeko eta zirkulazioa ordenatzeko; baina hori egin baino lehen, Gelma eta inguru hura guztia eraldatu egin behar dute, besteak beste, etxebizitzak egiteko.

Gauzak horrela, bien bitartean irlatxo bat egitea erabaki dute, autoen joan-etorria nolabait arintzeko. Are gehiago, lanok hasita daude eta laster bukatuko dituzte. Hain zuzen ere, Makatzenan egiten dabilta urbanizazio lanak aprobetxatu dituzte irlatxo hori egiteko.

### ERAIKINA BOTAKO EGINGO DUTE

Bestalde, gai horrekin lotuta Udaleko Hirigintza Saitetik jakinarazi digutenez, urbanizazio lan horien barruan, laster Santa Marina kalearen hasieran dagoen eraikin zaharra bota egingo dute. Hain justu ere, eraispena egiteko beharrezko baimenaren zain daude horretarako.

Beheko solairuan garajeak eta lehenengo solairuan tindategia zituen lehen eraikin horrek. Orain hutsik dago.



SERGIO AZKARATE

Argazkian ikusten duzun eraikin zaharra bota egingo dute, laster.



## Loteriako sari nagusia Arrasaten!

Ruiz de Alegria administrazioak Loteria Nazionaleko sari nagusia eman zuen joan den zapatuan, hilak 27: 1.200.000 euro (200 milioi pezeta). 51.788 izan zen zerbaki saritua eta zerbaki horren 20 dezimo saldu zituzten leihatilan. Hortaz, irabazle bakoitzari 60.000 euro tokatu zaizkio. Hala, bada, 6 euroko txartela erosi, eta 60.000 euro poltsikoratu dituzte!

Orain, Gabonei begira daude, asko salduko dutelakoan eta beste sariren bat emango dutelakoan. Ea orduan ere zortea lagun duten!

## LABUR

### Jarduera ekonomikoen gainera zatiko plana

Hirigintza Saitetik zera jakinarazi digute: Euskó Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendurako Zuzendariak hasierako onespina eman dio Jarduera Ekonomikoak eta Merkataritza Ekipamenduak egiteko lurzorua sortzeko zatiko lurralde planari. Horrela, Jaurlaritzak Udalarri jakinarazi dio erabaki dutela plan hori jendaurrean ipintzea, norbaitek alegazioak baditu horiek aurkeztu ahal izateko. Hain justu ere, urriaren 31ra arte egongo da jendaurrean.

## ELKARRIZKETA

MERTXE TROJAOLA/DENDARIA

*“Nik uste dut hamar urtetik hona asko hobetu dela euskararen egoera”*

UBANE MADERA

Beatriz oinetako dendan ere jaso dute euskararen normalizazioa bultzatzeko mahai gaineko kartel-txoa, bezeroek euskaraz egin dezaten. Izan ere, halako lekuetan gaztelaniara jotzeko ohitura dugu. Mertxe Trojaolari galdetu diogu.

**Dendara sartzean, bezeroak ze hizkuntzatan esaten du lehenengo berba?**

Denetik dago. Gazteek ia guztiek euskaraz; nahiz eta euren gurasoak kanpotik etorritakoak izan, %90ek euskaraz egiten dute. Nagusiagoak; akaso, okerragoak gara. Ezagunak badira, ez, baina ezezagunak badira, gaztelaniara jotzen dugu.

**Igartzen da alderik bezeroak arrasatearrak ala kanpotarrrak direnean?**

Igartzen dena da, eta aspaldi konturatuta gaude horrekin, Bergarako jendeak askoz ere gehiago egiten duela euskaraz.

**Azkenaldian lan handia egin dute euskararen normalizazioa bultzatzeko; igartzen duzue?**

Bai; asko, gainera. Kanpotik etorritakoen seme-alabek euskaraz egiten dute gurekin.

**Arrasateko saltokiak kanpokoekin konparatuz gero, zein mailatan erabiltzen dute hemengo dendetan euskara?**

Nik ez daukat kanpora joateko ohiturarik, baina Gasteizen, adibidez, hemen baino gutxiago erabiltzen dute euskara. Aldiz, oporretara eta Oriora joaten gara, eta han dena euskaraz egiten dute.

**Orain, AEDk kanpaina berezia abiarazi du; egin duzue sekula horrelakorik?**

Ez. Dena dela, nik uste dut hamar urtetik hona asko hobetu dela euskararen egoera hemen.

**Dendari moduan igartzen duzu zerbait faltan euskararekin lotuta? Babes handiagoa...**

Udalak egiten du lana. Adibidez, saltokietako txartelak edo idatziak euskaratzeko... Ni neu ez naiz laguntza eske joan, etxean egiten dugulako, baina azken urteotan

Udala badabil lanean. Ia urtero pasatzen dute zirkularra laguntza eskaintzen, inkestak egiten...

**Zuk zeuk egingo zenuke proposamenik?**

Nire adinekoei begiratuta, badugu ohitura lagun batzuekin gaztelaniaraz egiteko, nahiz eta euskaraz jakin. Dena dela, uste dut nahiko lan egiten dabilzala, eta poliki-poliki bagoazela aurrera.

**Erakusketa, Kalkuta ezagutzeko**

*Kalkuta:* Begirada zabalik izeneko erakusketa zabaldu dute oraingo astean Monterronen. Kalkuta ondo ezagutzen duen Kalkuta Ondoan gobernu kanpoko erakundeak antolatuta du erakusketa. Hala, argazkien bitartez Kalkutaren gaineko informazioa emango dute: gizartearen antolakuntza, erlijioaren eragina, emakumeen prostituzioa... Guztira 60 lan daude, hiru argazkilari profesionalak egindakoak.

Erakusketa urriaren 10era arte egongo da zabalik.

**Zuntz optikoa sartzen ibili dira Zarugalde kalean**

U.M.

Zarugalde kalean zuntz optikoa sartzeko azpiegitura egiten ibili dira. Joan den astean hasi zituzten lanok eta oraingo astean bukatu dituzte. Horrez gainera, Erguinen ere egiten dituzte halako lanak.

Herritar batzuek dagoeneko erabiltzen dute Euskaltel-ek eskaintzen duen zuntz optikoaren zerbitzua. Hain justu ere, Zerrajerako etxe berrietakoek eta San Juan auzokoek, esate baterako, eginda dute zuntz optikoa sartzeko beharrezko azpiegitura. Erguinen ere lanak egiten ibili dira (*Malvinetan*), eta aurreikusitakoaren arabera, gero Zigorrola eta San Andres auzoan segitezkotan dira.

Kontua da zuntz optikoa sartzeko lanak poliki doazela; izan ere, Arrasateko instalazioak ez daude horretarako gertu eta lur azpiko sarea zabaltzen ibili behar dute. Hala, aurreikuspenen arabera urte eta erdi inguru itxaron beharko da Arrasate osoan zuntz optikoa erabili ahal izateko.

**ORAINGOAN, ZARUGALDE**

Kontuak kontu, bien bitartean lanean segitzen dute. Hain justu ere, joan den astean Zarugalde

kalean hasi ziren zuntza sartzeko sarea zabaltzen, eta oraingo astean bukatu dituzte lanok. Coruña Pesados Silva izeneko enpresak egin ditu lanak. Enpresako arduradun Jose Manuel Quintansek kontatu digunez, zatika zabaltzen dabilza Arrasateko sarea, eta zati bat bukatzen duten neurrian beste batekin hasten dira. Eta adierazi digu Arrasaten segituko dutela beharrezko azpiegitura guztia bukatu arte.

Herri barruaz gain, aurreikuspenen arabera Arrasateko baserri auzoetara iristeko asmoa dute Euskaltel-ekoek, baina horrek luze joko du.

**ZUNTZ OPTIKOAREN ERABILERAK**

Zuntz optikoak honako zerbitzuak bidera ditzake: telefonia finkoa, telefonia mugikorra, Internetarako sarbidea eta kable bidezko telebista, betiere, erabiltzaile bakoitzaren interes partikularren arabera.

Besteak beste, Interneten ibiltzeko abiadura dezente handiagoa eskaintzen du zuntz optikoak, sarbide mugagabea eskaintzen du, 24 orduan eten barikoa; interferentziarik ez dute eraginik zuntz optikoan, eta zuntzek ez dute argirik galtzen; ondorioz, transmisioa segurua da eta ez dago etenik.



## LABUR

**Zapatuetan moduan, gaueko autobus zerbitzua ipini du PESA Maritxu Kajoirako**

Gipuzkoako Foru Aldundiak hala eskatuta, PESA gaueko autobus zerbitzua ipiniko du gaurko, Maritxu Kajoi egunerako. Hala, zapatuetan egoten den gaueko orduetegi bera egongo da. Honako hauxe da orduetegi: Eibartik Eskoriatzara 00:00etan, 01:30etan, 03:00etan, 04:30etan eta 06:00etan; eta Eskoriatzatik Eibarrera 00:00etan, 01:30etan, 03:00etan, 04:30etan eta 06:00etan. Hori bai, 00:00etako, 03:00etako eta 06:00etako autobusa Arrasateraino bakarrik iritsiko da; 01:30etako eta 04:30etako, berriz, Eskoriatzara. Horrez gainera, Arrasatetik Oñatirako autobusa ere egongo da, honako orduetegian: 00:45ean, 03:45ean eta 06:45ean. Eta Oñatitik Eskoriatzara ere ibiliko da autobusa: 23:15ean, 01:00etan eta 04:00etan. Horrez gainera, PESAko arduradunak adierazi digunez, herritarren eskaera euren eskaintza baino handiagoa bada, autobus gehiago ipiniko dituzte. Gainerako gaueko zerbitzuak zapatuan izango dira, betiko moduan.

# CDTi Meriva berria Diesel Common Rail



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



96% Meriva

motor berriak Opel  
**(CDTi)**

potentzia diesel  
**COMMON RAIL**

Konturatu zara malgua izanda urrunago heltzen zarela? Kilometro gehiagok aukera gehiago eskaintzen dituztelako, orain Opelen monobolumen berriaz goza dezakezu. Opel Meriva Diesel Common Rail teknologiarekin. Kontsumo minimoa eta errendimendu maximoa eskaintzen dizun Meriva, 1.000 aukera baino gehiago zuk heldu nahi duzunera heltzeko. Opel Meriva 1.7 CDTi berria da.

Meriva gama: kontsumo (l/100 Km) mistoa 5,3tik 8,2ra. CO<sub>2</sub> emisioa (g/Km) 159tik 257ra.

## Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)

# Garagartzako jaietan eguraldi txarrari aurpegi ona, eta buzkantza hobeak

XABIER URZELAI

laz ez bezala, aurten Garagartzako San Migel jaietan eguraldiak ez du askorik lagundu. Hala ere, egitarauan prestatutako ekitaldi ia guztiak egin ahal izan zituzten. Horrez gain, jende asko hurbildu da jaiatz gozatzera eta buzkantzak probatzera.

Egubakoitz arratsaldean hasi ziren Garagartzako San Migel jaiak. Ilunkeran, Haitzama taldearen eskutik dantza egiteko aukera paregabea izan zen. Gauerdian, berriz, *laminei* eta *Neanderthalgo* gizakiei ongietorria egin zieten. Gauak, gainera, luze jo zuen. Zapatu eguerdian herri kirolak izan ziren, baita baserriko jolasak ere. Arratsalde partean txikienak izan ziren protagonista, euren jolas mordo prestatu zituzten-eta. Ilunkeran bertsolarien esku egon zen San Migel jaiak berotzea. Gauean, berriz, Txinparta taldeak hartu zuen errelebuak. Eta domekan eta astelehenean ere egon zen San Migel jaiatz gozatzeko aukera, baita buzkantza ezin hobeez ere. ARGAZKIAK: OLAIA MONDRAGON





## Elgeta-Piel

Domingo Iturbe 8  
**ELGETA**  
943 76 81 12

*Udazkena  
eta negua  
iritsi dira  
Elgeta  
Pielera*

**Martitzenetik zapatuta:**  
**17:00-20:00.**  
**Domekak:**  
**11:00-13:30.**  
**Astelehenetan itxita.**





Oinezkoen ate automatikoak



Garajeko atek  
Burdinazko pertsianak  
Automatismoak  
Konponketak  
Urrutiko agente tresna homologatuak  
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



**JUBAR**<sup>®</sup>  
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17  
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@euskalnet.net

## GURASO ESKOLA

**ZURETZAT, AITA ETA AMA!!!**

IZENA EMAN EDO  
INFORMAZIO ZABALAGOA  
NAHI IZANEZ GERO,  
JAR ZAITEZTE  
HARREMANETAN  
GUREKIN!!!!

TELEFONOA: 943790900

E-POSTA:  
prebentzio@arrasate-mondragon.net

URRIAREN 7A AZKEN EGUNA



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Gizarte Sustapenerako batzordea

ZUEN SEME-ALABEN HEZIKETAN SORTZEN

ZAIZKIZUEN KEZKAK ETA ZAILTASUNAK ARGITU,

BIDERATU ETA ELKARBANATZEKO GUNEA SORTU

NAHI DUGU (HASTAPEN MAILA), ZUEK PARTE

HARTZEN DUZUELA.

LAU TALDE OSATUKO DIRA, ADINAREN ARABERA:

0-4; 5-9; 10-14; 15-18

**ETOR ZAITEZTE, MEREZI DU ETA!!!!**





KIMETZ

OKORETEGI

RUMBA

LORATEGI

EKAITZ

EZKIÑA

GURE LEKU

BOLIÑETE

BASATI

MONTE

BIONA

JAI ZALE

ITURRIOTZ

ITZALA

ONDO IBILI MARITXUTAN!


# ETXEAN NAHI DITU GU!




JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT



AMAIA ARRIETA




JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR




ENRIKE LETONA



ARATZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA



ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:  
Irtati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz



SASKIBALOIA

# Arrasate Ointxe Saskibaloia Taldeak 88-84 irabazi zion Caja Rural Ardoy taldeari

Oraingo asteburuan talde mondragoetarrek kontrario gogorra izango du: Arrigorriagako Padura taldea, hain zuzen

XABIER URZELAI

Arrasate Ointxe Saskibaloia Taldeak irabazi zion zuten etxean jokatuako lehenengo partidua. Talde mondragoetarrek garaipena behar zuten, eta Iker Zubiriak zuzendutako azken partiduan arrasatearrek ez zuten kalerik egin. Agur esateko modu ezin hobea.

Arrasate Ointxe Saskibaloia Taldeko entrenatzaileak, Iker Zubiriak, zapatuan esan zion agur taldeari. Zubiriak joan den urtean Kenci Arrasate taldea zuzendu zuen, eta aurten ere lehenengo jardunaldietan Arrasateko taldeari lagundu gura izan dio. Orain, baina, oñatiarra beste asmo batzuekin dabil, AEBetara joango da-eta. Zapatuan zuzendu zuten azkeneko Mondragoeko taldea, eta jokalariek garaipen batekin agurtu gura izan zuten.

**ONDO MEREZITAKO GARAIPENA**

Ibarreko taldeak argi zuten hasiera baino gehiago, partiduen amaiera izango zela gogorrena. Arrasate Ointxe Saskibaloia Taldekoek ondo hasten dituzte partiduak, baina ondo amaitzea da garrantzitsua. Zapatuan Iker Zubiriaren mutilek maila polita erakutsi zuten lehenengo minutuetan. Arrasate Ointxek barruko jokaldiak eginez min handia



OLAIA MONDRAGON

Zapatuan Iturripen izan ziren ikusleek ez zuten aspertzeko astirik izan, norgehiagoka ikusgarria izan zen-eta.

egin zion Caja Rural Ardoy taldeari. Beste jokalarik batzuekin batera, Mikel Biain oñatiarrak ondo jokatu zuten: 25 puntu egin zituen, eta Arrasatek erasoan izan zuten jokalarik garrantzitsuenetakoa izan zen. Atsedenal-

dian, Arrasate Ointxe taldeak agintzen zuten markagailuan (47-41), baina minutu asko geratzen ziren aurretik. Hirugarren laurdenean talde arrasatearrek ondo eutsi zion lortutako aldeari, baina laugarren laurdenean nafa-

rrek gora egin eta markagailuan aurreratu ziren (70-75). Bazurdiaren Arrasatek partidu osoan egindako lana azken laurdenean galduko zuela, baina ez zen horrela izan. Ibarreko jokalariz osatutako taldeak norgehiagoka osoko

*Iker Zubiriak azken norgehiagoka irabazita utziko du Arrasate Ointxe Saskibaloia Taldea*

*Ibarreko jokalariz osatutako Arrasate Ointxe taldeak bi minutuan erabaki zuten norgehiagoka*

*EBA mailara igotzekotan egon zen Padura taldearen kontra jokatu du domekan Arrasatek*

minutu onenak eginez hagin-kada galanta eman zion talde nafarrari (88-84). Utzi du Iker Zubiriak taldea, zapate gozoarekin, baina.

## Beste behin, azken uneko erabaki batek kalte egin zion Mondrari

XABIER URZELAI

Mondrak 2-2 egin zuten zapatuan Hondarribiaren kontra. Hondarribiaren bigarren gola 87. minutuan iritsi zen, penaltiz. Mondrak lau jardunaldi besterik ez du jokatu, eta dagoeneko epaileak dira protagonista.

Atxabalpera hurbildutako jarraitzaile mondragoetarrek protesta egin zuten epaileak 87. minutuan Mondraren kontrako penaltia adierazi zuenean. Ez da gutxiagorako, azken partiduetan Mondrak epaileen hainbat opari jaso ditu-eta: lehenengo partiduan, Hernaniren kontra, epaileak azken minutuetan Mondraren kontrako penaltia eztabaidagarria adierazi zuten (1-1); orain dela aste bi, epaileak 87. minutuan Mondraren kontra area barruko falta adierazi zuten, eta falta hari esker egin zuten Touring-ek hir

puntu eman zizkion gola (2-1); eta zapatuan, 87. minutuan beste opari bat: Mondraren kontrako beste penalti bat (2-2).

**EZ DU BALIO AITZAKIA MODUAN**

Mondraren kontra adierazitako penalti eztabaidagarri bati esker lortu zuten Hondarribiak berdinketa. Edozelan ere, horrek ez du esan gura, baina, futbol zelaian ikusitakoaren arabera berdinketa emaitza justua ez denik. Lehenengo zatian Hondarribia Mondra baino hobea izan zen, arrasatearrek galduta ibili ziren-

eta. Baloiaren jabetza Hondarribiarena izan zen, baina golak Mondrak egin zituen. Jon Loitik 48. minutuan egindako golari esker aurreratu zen Arrasateko taldea. Kontrarioak, baina, ondo erreakzionatu zuten, eta banakoa egitea lortu zuten. Mondra beste behin aurreratu zen, Iker Lopezen golari esker, baina ordu laurden geroago, partidua amaitzeko minutu gutxi geratzen zirenean, epaileak Mondraren kontrako penaltia adierazi zuten (2-2).

Mondrak bi partidu irabazi ditu, bat galdu eta beste bat berdindu. Ezin esan daiteke Josu Zubiriaren mutilek gaizki hasi direnik, baina azken bi jardunaldietan puntu garrantzitsuak galdu dituzte. Oraingo asteburuan mondragoetarrek liderraren kontra neurtuko dituzte indarrak; eta Real Union ez da kontrario makala izango. Liderraren kontra irabazteko otoi egitea komeni da, baina Maritxu Kajoiri?

*Oraingo asteburuan Mondrak liderraren kontra jokatu du, Real Union taldearen kontra*



OLAIA MONDRAGON

Nahiz eta ez jokatu, jokalarik batzuek ez dute umorerik galtzen.

ERRUGBIA

# Arrasate 12-29 gailendu zitzaion Lugoko Sarria taldeari, lagunarteko partiduan

Mondragoetarrek asteburu luzea izan dute, Galiziaraino joan dira-eta lagunarteko partidua jokatzera; edozelan ere, ondo baino hobeto ibili dira

XABIER URZELAI

Arrasateko Errugbi Taldeak ez du denborarik galtzen. Liga txapelketa bi aste barru hasiko dute, eta oraindik aurrendenboraldian daude. Lagunarteko partidua dira nagusi, eta lagunak egiterako orduan, ez dago Arrasateko taldea modukorik.

Arrasateko Errugbi Taldea Galizian izan da asteburuan. Lagunarteko partidua aitzakia hartuta, mondragoetarrek asteburu-pasa ederra egin dute. Autobusean ordu mordo egin dituzte, baina taldekideen esanetan, merezi izan du, ondo baino hobeto ibili dira-eta.

## OSO HARRERA ONA

Mondragoetarrek zapatuan abiatu ziren Galizia aldera, goizaldeko 03:30ean. Eguerdian iritsi ziren Sarriara, eta ondo bazkaldu eta gero atsedean hartzeko astia izan zuten, norgehiagoka 17:30ean zen-eta. Lagunarteko

norgehiagokan mondragoetarrek nagusitu ziren. Lehen zatia parekatua izan zen. Arrasate aurreratu zen markagailuan (0-7), baina galiziarrek berehala erantzun zuten (5-7). David Jauregiren mutilek entsegu bat egin, baina lehenengo zatia amaitu aurretik Sarria taldekoek norgehiagoka berdindu zuten (12-12). Bigarren zatian, berriz, Arrasatek ondo defendatu zuen, eta entsegu bati esker irabazi zuten partidua. Arrasateko senior taldeko jokalariek gainera, gazte mailako hamar jokalarirenekin ere izan dira Galizian.

Norgehiagoka amaitutakoan, hirugarren zatian txanda iritsi zen, eta hor ere mondragoetarrek aparteko abilezia erakutsi zuten. Jon Baltategi Arrasateko taldeko jokalariren esanetan, Sarria taldekoak ondo baino hobeto portatu dira: "Bazkaltzera eta afaltzera gonbidatu gintuzten, eta gura beste olagarro jateko aukera izan dugu. Ordu asko egin ditugu autobusean, baina merezi izan du".



Arrasate Errugbi Taldeak urriaren 18an hasiko du liga txapelketa.

## FOTOKIROLA



## Espainiako Itzuliko porran 11.514 euro banatu zituen Montek

Eguazten arratsaldean, Espainiako Itzuliko porrako irabazleak Monte tabernan izan ziren, sariak jasotzen. Espainiako Itzuliko porran 404 talde izan dira, eta Montek 11.514 euro banatu ditu. Porrako irabazleak Kortabarria anaiak izan dira, eta 4.848 euro eskuratu dituzte. Bigarren saritua Yogo-ke taldea izan da: Azkarate anaietako txikiena eta koadrilako lau lagun. Yogo-kek 3.030 euro poltsikoratu ditu. Hirugarren saritua, berriz, Le Kañe Les Kabres II taldea izan da, eta 1.515 euro jaso ditu. Laugarren postutik hamargarren postura sailkatu direnek ere izan dute saria: 303 euro. Porran asmatu dutenen esanetan, ONCEko Nozal eta Kelmeko Valverde ziklistek eman dute ezuste handien. Horiek gain, Cardenasek eta Petacchik ere puntu mordo eman dituzte. /X.U.

## Seniorretan hiru talde izango ditu Arrasate Eskubaloi Taldeak

X.U.

Arrasate Eskubaloi Taldeak oraindik ez du denboraldia hasi, baina horrek ez du esan gura lanean ez diharduenik. Arrasatek inoiz baino talde gehiago izango ditu aurten seniorretan: hiru, guztira.

Eskubaloia atsegin duten mondragoetarrek gura beste norgehiagoka ikusi ahal izango dituzte aurten. Senior mailan izango diren hiru taldeei gazte mailako eta kadeteetako taldeak gehitzen badizkiegu, ohartuko gara Arrasaten eskubaloiak uste baino indar handiagoa daukala.

### GAZTE ASKO KIROLA EGITEKO PREST

Esan bezala, hiru talde izango dira aurten senior mailan: lehenengo territorial mailan lehiatuko den AGR Arrasate taldea eta bigarren territorial mailan izango diren Arrasate eta Gatz Museoa Jakion taldeak, hain zuzen ere. Gazte mailatik jokalarirekin ere, izan ere, jokalarirekin ere ezin dute gazte mailan jokatu. Arrasateko Eskubaloi Taldea zuzentzen duten buruhauste galantak izan dituzte aurrendenboraldian: zer egin horrenbeste jokalarirekin? Beste kirol talde batzuetan ere

behin baino gehiagotan izan dute arazo hori. Askotan, talde nagusira igotzeko aukerarik ez, eta jokalarirekin askok taldea utzi egin behar izan dute.

### IRTENBIDEA: BESTE TALDE BAT SORTZEA


Horrelako egoera batean, beste talde bat sortzea izaten da irtenbideetako bat, baina ez da irtenbide erraza; besteak beste, talde hori zuzenduko duen entrenatzailea aurkitu behar delako.

Zailtasunei aurre eginez, Arrasate Eskubaloi Taldekoak ez dira kikildu, eta aurten hiru talde izango dituzte senior mailan. Maila guztietako taldeak aspaldi hasi ziren entrenatzen, eta dagoeneko desatzen daude Liga Txapelketa hasteko.

### HASTEKO ZAIN

Senior mailako liga txapelketak datorren asteburuan hasiko dira, urriaren 12an. Lehen territorial mailako AGR Arrasatek Usurbilen kontra jokatuko du denboraldiko lehenengo norgehiagoka.

Bigarren territorial mailan, berriz, derbia izango da Iturripen. Mondragoeko bi talde izango dira nor baino nor gehiago: Arrasate eta Gatz Museoa Jakion, hain zuzen ere. Liga txapelketa hasteko modu ezin hobea, hortaz.



ZAHAR BERRI

Zahar Berriko berba-taldeek asteburuetakoko ekintzak egiten dituzte, euskara praktikatu eta aisialdia uztartzeko.

**EUSKARA**/Zahar Berri taldeak ikasturteari hasi du

## Zahar Berri euskaldun zaharren laguntza behar du

IKER BARANDIARAN

AEDk eta herriko bi euskaltegiek lankidetzan sortutako Zahar Berri euskaldun zaharrek behar ditu, euskaldun berriei euskalduntze prozesuan laguntzeko. Zahar Berri euskaldun berriei eskolatik kanpo euskaraz berba egiten laguntzen die.

1997-98 ikasturtean sortu zen Zahar Berri, AEDren, AEKren eta Udal Euskaltegiaren lankidetzari esker. Hirurek premia handia ikusi zuten: euskaltegiatiko ikasleek euskalduntze prozesuan haratago joateko eskolatik kanpo euskara praktikatzeko behar handia zuten, eta dute. Euskara ikasten duten lagun askok euren gertuko inguruan ez daukate zein euren euskaraz egin, edo euren inguruan ez dago euskaraz egiteko ohiturarik.

Arazo hori saihesteko, Zahar Berri sortu zuten. Talde horrek euskaldun zaharrak eta berriak batzen ditu.

**EUSKALDUNTZE PROZESUAN SAKONDU**  
Zahar Berri euskaltegiaren euskaraz ikasten dabiltzan lagunak eta euskaldun zaharrak batzen ditu, ikasleek euskara praktika dezaten eta poliki-poliki giro euskaldun eta euskal kulturaren murgil daitezen.

Horrez gain, ikasle horiek euskalkira hurbiltzea ere gura dute. Izan ere, euskaltegiaren ikasten duten euskara batutik Arrasaten, kalean, egiten den euskarara alde handia dago. Beste muga hori gaingaitzea ere helburutzat du Zahar Berri.

Zahar Berri ikasturteka egiten du lan. Euskaltegiekin harremana izaten du eta ezagutza minimoa duten ikasle zerranda egiten dute. Hortik aurrera, Zahar Berri euskaldun zaharrak aurkitu behar ditu.

*Euskaltegiatiko ikasleek eskolatik kanpo euskara praktikatzeko premia handia dute*

*Euskaldun zahar gutxirik ematen dute izena, eta horien premia dago taldeak osatu ahal izateko*

Bi talde nagusi daude: batetik, berba-lagunak; eta bestetik, berba-taldeak. Berba-lagunak hiru edo lau lagunek osatutako talde txikiak dira. Orokorrean, talde bakoitza bi euskaldun berri eta euskaldun zahar batek osatzen dute, eta aste barruan elkartzen dira. Gutxienez astean ordubete egin behar dute elkarrekin.

Berba-taldeak, berriz, talde mugagabeak dira. Euskaldun zaharrek eta berriek osatzen dute, eta normalean asteburuetakoko ekintzak egiten dituzte.

**EUSKARAZ EGITEKO OHITURA INDARTU**  
Aipatutakoaz gainera, euskaldun berriek talde horietan parte hartzen dutenean aproposa izaten da eurekin batera lagun bat eramatea. Horrela, lagunarekin euskaraz egiteko ohitura indartu egiten da.

Zahar Berri aditza eman duenez, euskara praktikatzeko borondatea duten euskaldun berri asko daude, baina, zoritxarrez, euskaldun zahar gutxi ematen dute izena, eta horien premia dago, taldeak osatu ahal izateko. Euskaldun zaharrei parte hartzeko dei egiten diete.

Ekimen horretan parte hartzeko izenematea zabalik dago, eta interesatuek lehenbailehen AEDra jo behar dute, dagoneko hasi direlako euskaltegi eskolak.

## Eguenetako zinekluba jarriko dute abian urriaren 9an

I.B.

**Udaleko Kultura Saila opor osteko atsedendia bukatu eta kultura ekitaldiak antolatzen hasi da. Urriaren 9an eguenetako zinekluba jarriko du abian. Urriaren 9an emango dute ikasturteko lehenengo filma.**

Udaleko Kultura Sailak abian jarri du eguenetako zineklub eskaintza. Urriaren 9an emango dute lehenengo filma. Ohiko orduan eta lekuan emango dute: 21:30ean, Amaia Udal Antzokian. Carlos Sorin zuzendari argentinarren *Historias mínimas* film ederra izango da ikasturte hasiko duena. Sorinek kontatzen duen istorioa Patagonia inguruan kokatzen da. Hiru lagun bidaia bakartiak azaltzen ditu: zakurraren bila dabilen 80 urteko agure batena, alargun batekin maitemindu den merkatari batena eta telebistako zozketa irabazi duen emakume xume batena.

Urriaren 16an, AEBetako Darren Aronofsky zuzendariaren *Pi* filma emango dute. Zoraztear dagoen matematiko baten istorioa oso modu berezian kontatzen du. *Pi* zenbakia deszifratzea du helburu.

Urriaren 23an Uruguayko Beatriz Flores Silva zuzendariaren *En la puta vida* filma emango dute. Elisa izeneko gazte baten istorio tristea kontatzen du. Ite apaindegia ipintzeko ametsa du, eta diru bila Bartzelonara joko du. Inmigrazioaren, prostituzioaren eta tratu txarren alderdi ilunak erakutsiko dizkigu.

Hilabetea bukatzeko, urriaren 30ean Mexikoko Carlos Carrera zuzendariaren *El crimen del padre Amaro* filma ikusi ahal izango dugu. Film horrek eliza katolikoaren kritikak izan ditu. Narkotrafikatzaileen artean bizi den abade gazte batek erabaki garrantzitsuak hartu behar ditu, bere eguneko eginbeharraren aurrera egiteko.

## Gazte Sailak gazteentzako hainbat ikastaro antolatu ditu

I.B.

**Urtero moduan, Udaleko Gazte Sailak gazteentzako hainbat ikastaro antolatu ditu. Gehienak urriaren erdialdean hasiko dira, eta izenematea zabalik dago. Interesatuok jo Gazte Bulegora informazio eske.**

Udaleko Gazte Sailak ikastaroen eskaintza zabaldu antolatu du oraingo ikasturterako. Horieta-ko batzuk antolatuko, Udaleko Gazte Sailak herriko hainbat elkarterekin egin du lankidetzat.

Lore Gazteak taldeak euskal dantzen ikastaroa emango du, urriaren 10etik abenduaren 19ra bitartean. 10 urtetik gorakoei emango dizkiete eskolak, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30era.

Ipuin kontalarientzako ikastaroa ere antolatu dute. Idoia Sanchez izango da irakaslea, eta urriaren 16tik abenduaren 18ra emango ditu eskolak. Eguenero batuko dira, Monterronen.

Aurten ere sabel dantza eskolak antolatu dituzte eta Jaione Albenizek emango ditu. Urriaren 18tik azaroaren 29ra bitartean, zapatuetan, Musakolako kiroldegian batuko dira. Hastapen mailakoak 10:00etan eta sakontze mailakoak 12:00etan.

Jon Ruiz de Zaratek argazkigintza eskolak emango ditu. Urriaren 20tik azaroaren 17ra, astelehen eta eguaztenetan izango da argazkigintza ikasteko aukera.

Loixe elkartek zeramika ikastaroa antolatu du. Interesatuek urritik ekainera bitartean izango dute ikasteko aukera. Martitzen eta eguenean edo zapatu goizetan ikasi ahal izango dute, bi txandak aukeran. Umeek ere eman ahal izango dute izena.

Iñaki Bruñak perkusio ikastaroa antolatu du: hastapen mailako eta sakontze mailako eskolak izango dira, eta urriaren 6tik azaroaren 10era arte emango dituzte, Gazteluondon.

## LABUR

### Euskarazko eta gaztelaniazko literatura solasaldiak antolatu dituzte Monterronen

Udal Liburutegiak eta Emakume Sailak III. Literatura Solasaldiak antolatu dituzte. Euskarazko solasaldiak urriaren 28an, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an izango dira, 18:30etik 20:30era, eta Iban Zalduak koordinatuko ditu. Gaztelaniazkoak urriaren 23an, azaroaren 13an eta abenduaren 11n izango dira, ordu berean, Ana Arregik koordinatuta. Izenematea epea urriaren 17an bukatuko da. Solasaldiak Monterronen izango dira. Antolatzaileek euskarazko taldea osatu gura dute; gizonezkoak parte hartza animatu gura dituzte.

BEHEKO KONTZESIONARIOTIK

# Xabier Tristan

## GIAUTO AUTO-KONTZESIONARIOA

XABIER URZELAI

Xabier oin dala urte eta erdi inguru hasi zan Giauton lanien. Lehenago be kotziek saltzen ibilli zan; hortan, ondo ezaguketan dau marka bat baiño gehixago. Opel-en egitten dau lan, baiñe Toyota, Honda eta Kia auto markak ez jako arrotzak egitten. Gustora dabil lanien, saltzaille batendako gauza inportantie.

**Txikittan ze gure zeuen izen?**

Futbolista.

**Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?**

Ez, gustora nabil hamen.

**Drogak legalizauko zeuke?**

Bai, informaziño gehixago egongo litzake.

**Eta prostituziñue?**

Hori be bai.

**Ze eskatuko zeuskio alkati?**

Aparkalekuen arazue konponketan ahaleginketako, eta tabernak beranduago ixteko.

**Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?**

Ezin dot gauza haundirik esan, ez dot-eta ondo ezaguketan.

**Nora juengo zitzaie gustora?**

Oin? Costa Ricara.

**Etxeko lan gorrotagarrixena?**

Plantxie egittie.

**Bizio bat?**

Erretie.

**Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?**

Agendie.

**Juergazalie zara? Jueragar-ko leku bat?**

Bai. Mondraguen ondo.

**Janari eta edari gustokue-  
nak?**

Jateko, arrautzak txorixuekin; edateko, arda on bat.

**Tranpan ibilttekotan nor-  
baittekin, zeñekin?**

Iñokin be ez.

**Zergaittik egingo zeuke  
lanuztie gustora?**

Jentiek ikasketak bukaketan dauenien lana errexago topau dai-  
xen; horren alde egingo neuke.

**Automobil asko saltzeko**



X.U.

*“Saltzeko orduen inportantie da klientiek automobille probetie; orduen dezididuten daue”*

**sekretorik bai?**

Sekretue? Automobille ondo erakustie inportantie da, baiña probetie da inportantiena. Orduen dezididuten dau klientiek automobille gustau jakon edo ez.

**Elegidu zuretako Opel-eko modelo bat.**

Opel Vectra GTS modelue.

**Zergaittik?**

Diseño deportibue daukolako, automobil segurue dalako, ondo dabilrelako eta prezio ona daukolako.

**Diseño aldetik ez die antzekuek laster urtengo dauen Astra eta Golf barrixek?**

Golf barrixen gainien ezin neike askorik esan, ez dot-eta ondo iku-

*“Neuri Opel Vectra GTS modelue gustetan jat: diseño deportibue, segurue, prezio ona...”*

si; esango neuke lehengo modeluen antzekue dala. Eta Astra barrixei dagokixonez, guztiz kanbixau daue, beste automobil bat da.

**Corsa modeluek zenbat urte gehixago egin biher dittu?**

Ez dakit ba. Kontue da jentiek izen hori ezaguketan dauela eta badakixela ze automobil klase dan. Ez dau merezi holako izena daukon modelue aldatetie.

**Zergaittik rekomendaiko zeuke Opel markie?**

Kontrastautako markie dalako, kalidade oneko automobillak daukolako, seguruek dielako, prezio aldetik konpetitibuek dielako, eta saltzeko asmue euki ezkerro, errex saltzen dielako.


## NIRE BIDAIA HURA / Illart Azkarate

Korsika / 2003ko abuztuan

Illart Korsikan izan da abuztuan, neskalagunarekin batera. Turismoa beste modu batean egin gura zuten, eta Korsika bizikleta gainean ezagutzea erabaki zuten: “Korsikan bizikletan ibili diren hainbat lagunekin berba egin, eta bagenekien nondik nora ibili”. Hegazkinean joan ziren Korsikara, eta badirudi bidaiak bizikletei ez ziela onik egin, apurtuta iritsi ziren-eta: “Eskerak bizikleta zaharrak eraman genituela, bestela...”.

Lehen bi egunak Ajaccion egin zituzten, eta gero Korsikako hegoalderantz jo zuten: “Korsika oso garestia da, baina guk ez genuen diru askorik gastatu. Lo hondartzan egiten genuen askotan, eta egunean zehar ez genuen askorik jaten. Hori bai, gauean makarroi platerkada ederrak jaten genituen”. Bizikletan ibiltzeko oso leku aproposa da Korsika, baina bizikletan ibiltzera ohituta egon behar da: “Bizikleta gainean bidaiatuz gero, parajeez askoz gehiago gozatzen da, baina sasoiaren egotea komeni da”. Korsikako hegoaldean hainbat herritan izan ziren: Porticcion, Propianon, Sartenen... Herri politena, baina, Bonifazio iruditu zitzaion: “Bonifazion alde zaharra amildegien gainean dago eraikita, eta herri ikusgarria da. Italiar asko dago han, eta portuan sekulako itsasontziak daude. Bi egun egin genituen han, ordurako hankak nekatuta geneuzkan-eta”.

Illart eta neskalaguna mondragoeko hainbat lagunekin elkartu ziren: “Besteak autoz zihoazen, baina gure ibilbide bera egin behar zuten. Behin baino gehiagotan elkartu ginen eurekin, eta gu pozik: hozkailua, eguzkitakoa... Denetik zeukaten. Bonifazio atzean utzi eta iparralderako bidea hartu zuten. Kostaldetik hainbat kilometro egin eta gero, barrualdera egin zuten, eta hasierako kilometroak gogorak izan ziren: “30 kilometroko portua igo behar izan genuen, baina hango parajeez txundituta geunden, eta aldapak ez zitzaizkigun horren gogorak egin”. Datoren astean Korsikan jarraituko dugu Illartekin.



*“Bonifazioko alde zaharra amildegien gainean eraiki zuten”*

XABIER URZELAI



Bonifazion egindako argazkia.

N & N sol

Solarium eta Estetika Zentroa



**Zerbitzu osagarriak:**


- Mota guztietako tratamendu estetikoak
- Depilazioa
- Manikura, pedikura
- Gel-azazkalak
- Permanenteak eta befileen tindatzeak

**Ordutegia:**

Astelehenetik egubakoitzera,  
10:00etatik 20:30era  
Zapatuetan, 10:00etatik 14:30era

**Solariumerako bonuak**

- Saio bat 5 €
- 10 saioko bonua 42 €
- 20 saioko bonua 72,5 €
- 30 saioko bonua 90,5 €



Ferrerias kalea 28, behea ARRASATE Tel.: 943 79 64 57

E, TXO!

### TXIKILANDIA PARKERAKO BEGIRALE DEIALDIA

Txatxilipurdi elkarteak Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko izenemate epea zabaldu du. Txikilandia Musakolako kiroldegian antolatuko dute 2004ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Hala, Txikilandian begirale izan gura duenak Txatxilipurdira jo behar du, eta zera eraman: NAREN fotokopia eta argazki bat, hain zuzen ere. Horren gaineko informazio zabalagoa behar izanez gero, dei ezazu honako telefonora: 943 79 54 46.

### KONTZERTU ETA FILM LABUR EMANALDI JENDETSUAK

Joan den asteburuan AGAKOK gaztetxean antolatu zituen ekimenek oso harrera ona izan zuten. Egubakoitzeko punk-Oi! kontzertura jende asko joan zen, eta zapatuan, film laburren emanaldiak arrakasta handia izan zuten: ipini zituzten 60 jarlekuak motz gelditu ziren eta lagun askok zutik ikusi behar izan zituzten film laburrak. Halako harrera ikusita, baietz errepikatu!

### LUDOTEKEN ORDUTEGIA

Txatxilipurdik kudeatzen dituen Okendoko eta Santa Marinako ludotekak aurrerantzean ohiko ordutegian egongo dira zabalik: astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara.

### KUTXA FUNDAZIOAREN LITERATURA SARIAK

Kutxa Donostia Hiria literatura sariak antolatu ditu Kutxa Fundazioak. Hainbat mailatan banatuta dago lehiaketa hori: gaztelaniazko ipuina eta antzerki lana eta euskarazko ipuina eta antzerki lana.

Urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira lehiaketarako lanak. Informazio zabalagoa gura izanez gero, [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) webgunera jo dezakezue edo zerbaki honetara deitu: 943 41 11 57.

### JUAN SAN MARTIN BEKARAKO DEIALDIA

Botanikaren edo mendizaletasunaren gaineko ikerketa egiteko beka deialdia egin du Eibarko Udalak. Urriaren 10era arte duzue eskaerak egiteko epea. Informazio zabalagoa izango duzue [www.gipuzkoa.net/eibar](http://www.gipuzkoa.net/eibar) webgunean.

## GUREGAIK/ TXATXIARTISTAK

# Txatxiartistak antzerki taldean errelebua egiteko gaztetxo bila


IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdi elkarteak Txatxiartistak antzerki talde berria osatu gura du. Horretarako, 9 eta 10 urte arteko gaztetxoei dei egin die. Txatxilipurdik urriaren 16rako osatu gura du taldea.

Txatxiartistak taldea osatu aurretik, Txatxilipurdi elkarteak Arrasateko hainbat ikastetxeri antzerki tailerra egitea proposatu zien. Hala, San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastoletako ikasleekin eratu zuten tailerra, eta oso harrera ona izan zuen. Tailerra bukatu ondoren, gaztetxoei antzerkigintzan jarraitzea erabaki zuten. Orduan sortu zen Txatxiartistak taldea.

### ERRELEBUA BEHAR DUTE

Mikel Irastortzak zuzenduta eta Itziar Rosadoren laguntzarekin, *Eguzkiaren bila* lana prestatu zuten, eta hainbat antzoki eta plazatan antzeztu zuten: Arrasaten, Bilboko Kafe Antzokian, Arroan (Zestoan)... Edozelan ere, Txatxiartistak taldeko partaide gehienak nagusitu, eta taldea utzi egin dute. Horregatik, Txatxilipurdik 9 eta 10 urte arteko gaztetxoei dei



ARRASATE PRESS

Orain dela bi urte, Txatxiartistak antzerki taldeak 'Eguzkiaren bila' lana prestatu zuten.

egin die. Izenematea zabaldu dute, eta adin tarte horretako hamalau bat lagun behar dituzte.

Zera dio Txatxilipurdik: "Lagun berriak egin gura badituzu eta sen artistikoa garatu gura baduzu, izena eman eta par-

te hartu Txatxiartistak taldean".

Talde berri hori Mikel Irastortzak eta Itziar Rosadok zuzenduko dute eta, asko jota, hamalau lagunek osatzea gura dute. Partaide gehiago egonez gero, gaitza izango litzateke koordina-

zio lanak egitea.

Urriaren 16an gurasoei azalpen guztiak emango dizkiete, eta ikasturte bukaerarako antzezlanen bat prestatu gura dute.

Izena eman lehenbailehen Txatxilipurdiren bulegoan!

## GUREGAIK/ ZIENTZIAREN GAINKO LEHIAKETA

# Zientziaren gaineko ZerNola Olinpiada hasiko da urrian

I.B.

Elhuyar Fundazioak sortutako *zernola.net* atariak II. Zernola Olinpiada antolatu du. Olinpiada hori zientziaren gaineko lehiaketa da, eta Euskal Herri osoko ikasleek har dezakete parte bertan.

Elhuyar Fundazioak 2002ko apirillean ipini zuen sarean [www.zernola.net](http://www.zernola.net). Atariaren helburua da 10 eta 14 urte arteko gazteei zientzia hurbiltzea. Atari horrek natura hobeto ezagutzeko erremintak eskaintzen ditu eta zientziaren alorrean sortzen diren berrikuntzen berri ematen du: besteak beste, irakasleei lanerako material interesgarria ipintzen die eskura.

### DAGOENEN EMAN DAITEKE IZENA


Gaztetxoei zuzendutako II. Zernola Olinpiada urrian hasiko da, [www.zernola.net](http://www.zernola.net) atarian ezagu-

*Ikasteko materiala banatuko dute hilerro; sari nagusia aterpetxe baten egonaldia izango da*

tzera emango duten lehiaketako lehenengo probarekin, hain zuzen ere. Atari horretan izena emateko epea irekita dago, eta Euskal Herriko DBHko 1. eta 2. mailako ikasgela guztiak dauden gonbidatuta olinpiadan parte hartzera.

### IKASTEKO MATERIALA ETA ATERPETXEA

Hilerro, urria eta maiatza bitartean, ikasleek zientziaren gaineko proba bat gainditu beharko dute. Probak gelakide guztien artean egiteko dira eta erantzun-



ZERNOLA

La Salleko ikasleek (Donostia) irabazi zuten I. Zernola Olinpiada.

na posta elektronikoko bidez bidali beharko dute. Jasotako erantzunak lau irizpideren arabera puntuatuko dituzte: egokitasuna, orijinaltasuna, azkartasuna eta erantzuna egoki landu eta aurkeztea, hain zuzen ere. Hil bakoitzeko irabazleek saria jasoko dute: ikasgelan erabiltzeko materiala, hain justu.

Hilerro puntu gehien batzen dituen ikasgelak sari nagusia jasoko du: asteburu-pasa Urbasako Bioitza aterpetxean. Sartu [www.zernola.net](http://www.zernola.net) atarian eta erantzun lehenengo galderari!




ARRASATE  
**Rosario Errasti**  
Urriaren 7an, urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Anton Sagasta**  
Urriaren 6an, urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Jokin Arakistain**  
Urriaren 2an, 10 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Iñigo Arakistain**  
Urriaren 4an, urtebetetzea.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Patxi Gorosabel**  
Urriaren 3an, urtebetetzea.  
Zorionak! Lehengusuen partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Elizaran**  
Urriaren 2an, 4 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE  
**Xabier De Andres**  
Urriaren 9an, 3 urte. Zorionak! Arrasateko senideen partetik.



ARRASATE  
**Alberto Letona**  
Urriaren 2an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Arantxa Eriz**  
Irailaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARRASATE  
**Leticia Otxoa**  
Urriaren 5ean, 12 urte. Zorionak! Aitaren eta amaren partetik.



ARRASATE  
**Naiara Capellan**  
Urriaren 2an, 4 urte. Zorionak! Aitaxo, amatxo eta Asier.




ARRASATE  
**Iban Lizarralde**  
Irailaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, *On Pipario!* Koadrilakoen partetik.



ARRASATE  
**Iñigo Zabalo**  
Urriaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, *broker!* Koadrilakoen partetik.




ARAMAIO  
**Iñaki Molero**  
Irailaren 29an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE  
**Unai Laskurain**  
Urriaren 4an, 1 urte. Zorionak! Aitaxo, amatxo, izeba eta Ainhoa.



ARRASATE  
**Iker Ayastuy**  
Urriaren 4an, 28 urte. Zorionak! Zuk dakizunaren partetik.



ARRASATE  
**Unai Laskurain**  
Urriaren 4an, 1 urte. Zorionak! Aitona, amona, Aitor eta Leire.



ARRASATE  
**Enriqueta Arana**  
Urriaren 4an, urtebetetzea. Zorionak! Nerearen eta Aitorren partetik.




ARRASATE  
**Jon Ormaetxea**  
Irailaren 26an, 7 urte. Zorionak! Gurasoak, Ane eta lagunak.



ARRASATE  
**Balbina Mondragon**  
Zorionak! Etxekoak partetik.



ARRASATE  
**Enara Davila Iria**  
Urriaren 2an, 3 urte. Zorionak! Juan Antonio eta Loli eta Jokin eta June.



ARRASATE  
**Aitor Iria Urzelai**  
Irailaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak! gurasoak eta anai-arrebak.



ARRASATE  
**Jon Iria Urzelai**  
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Nereak eta Maitanek, bihotz-bihotzez.



ARRASATE  
**Harri Anzizar**  
Urriaren 4an, 12 urte. Zorionak! Gurasoak eta Urki.



ARRASATE  
**Jone Iribecampos**  
Urriaren 4an, 11 urte. Zorionak! Etxekoak partetik.



ARAMAIO  
**Mikel Balanzategi**  
Irailaren 28an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Etxekoak partetik.



ARRASATE  
**Jone Zubizarreta**  
Urriaren 6an, 3 urte. Zorionak, eta muxu handi bat! Etxekoak.



ARRASATE  
**Idoia Torres**  
Urriaren 3an, 18 urte. Zorionak, eta muxu handi bat! Etxekoak.



BERGARA  
**Amaia Fernández**  
Urriaren 4an 31 urte. Zorionak, eta muxu handi bat! Lankideak.



ARRASATE  
**Younes Zefri**  
Urriaren 3an, 5 urte. Zorionak! Gurasoak eta aitona eta amona.



ARRASATE  
**Ane Zuazubiskar**  
Urriaren 3an, 9 urte. Zorionak! Gurasoen eta familia guztiaren partetik.



ARAMAIO  
**Txaro Saenz de Viteri**  
Urriaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

EZETZASMATU



**ARRASATE  
URRIAK 6  
OCTUBRE**

herriko seme gojueak, beren zaindariak

MARITXU KAJOI 25 URTE LIBURUA

Zein urtetakoa da argazkian ikusten duzuen kartela?  
Arrastoa: Jagoba Arantzabal eta Iñaki Arana izan ziren egileak.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERÁNTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Timotei xanpua**  
500ml

**3x5,3 €** 882pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**JOSE MARI BOLINTXO**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Mari!  
Galderen erantzun zuzena:  
Zaldibar kalean.

ARRASATEKO HISTORIA

Txikiteuen ohituratik  
jaixotako herriko festie

'MARITXU KAJOI 25 URTE' LIBURUA

Txikiteuen ohiturie herrixen sustraitute euen 70eko hamarkadaren hasieran. Urte horreittan, gaurko egunien baño gehixauten ebillen jentie txikiteuen eta kuadrilla ugeri eta haundi samarrak ibiltten zien tabernaik taberna txikituek eraten. Tabernetako girue oso ezberdiñe zan gaurko egunekuen aldien, asteazkenien gabez kantuen ibiltten zien, izen be, ez euen musikaik tabernetan. Danetik ibiltten zan txikiteuen, 16 urtekuek, heldutxuauek eta agure nausixek... Horrein guztien erdixen Pepe Txantxote, Arrasateko gizon alai ta saltserue. Muletakin ibiltten zan txikiteuen ta kuadrilla batzuk, Txantxote ikusten euien bakotxien, trago batera gonbidetan euien. Harek, basue altxau eta esaten euen: "Por Maritxu!". Behin baten kuadrilla hareittako gazte batzuk, Maritxu ha emaztea zalakuen, adarra joten hasi jakon. Zalantzak argitze alde, parrokiakako ate nagusie beittu ta zera erantzun eutzien: "No tenéis ni idea, Maritxu es esa, Maritxu

*Tabernetako girue oso ezberdiñe zan gaurkuen aldien; asteazkenien gabez kantuen ibiltten zien*

*1977an Maritxu Kajoi festa ospatu zan. Hazixe ereinde euen, partizipaziñue eskasa izan arren*

Kajoi, patrona de los txikite-ros!". Orduen ezautu euien kuadrillek gure Maritxu Kajoi.

Orduen sasoién, kultura ekintzak antolaketan ibiltten zan jentie batu ta Maritxu Kajoi festa egiteko asmuek hartu euen indarra. Lelengoko proposamenetan, 1975 urtien egitea eukien buruen, baño orduen bizi izendako zer batzuk (Txiki ta Otaegin zein Iñaki



'MARITXU KAJOI 25 URTE' LIBURUA

Hirugarren saiakeran lortu zuten festa egitea: 1977ko urriaren 5ean, egubakoitza, Maritxu Kajoi festa ospatu zuten.

Etxaben hilketak...) zer horretan itxi euien asmue. Horren aurrien, bigarrenez hurrengo urtien egitea pentsau euien. Hala ta be, bigarren aldixen be huts egin euen. Izen be, aste bat

lenau On Jose Luis Iñarra herriko parrokie hil zan, mezie emuten ebillela.

Azkenien iritsi zan festan egune, 1977ko urriaren 5ie, eguakotxien, Maritxu Kajoi

festa ospatu zan. Hazixe ereinde euen, partizipaziñue eskasa izan arren. Hala ta be, honeitan urtietan egindako eurixek ederto asko sustraitu dau orduko hazixe.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urriaren 3a / 79. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Herriko auzoetako alkateak izendatu dituzte datozen lau urteotarako

UBANE MADERA

Azken lau urteotan auzo alkate jardun eta gero, txanda aldatzeko sasoia iritsi zaie oraingoei, eta irailean, datozen lau urteotarako auzo alkateak aukeratu dituzte. Hain justu ere, udalbatzarrak berretsi egin ditu karguok azkeneko osoko bilkuran.

Oro har, Udalaren eta auzoaren artean ordezkaritza lana bete ohi dute auzo alkateek, eta lau urterako kargua izaten da. Aramaio-ko auzo batzuetan bozketa bidez aukeratzen dituzte ordezkariek eta beste batzuetan familien artean txandakatu egiten dira auzo alkate izateko.

Kontuak kontu, orain dela lau urte izendatu zituzten azkenekoz Aramaio-ko auzo alkateak. Beraz, kargua utzi, eta berriak izendatzeko garaia iritsi da.

### ALKATEAK, AUZOKA

Aipatutako moduan, irailean auzoka alkateak aukeratzen ibili dira. Eta, orain, iraileko osoko bilkuran (17an), auzo bakoitzak hartutako erabakiak berretsi egin ditu Aramaio-ko udalbatzarrak.



Irailean aukeratu dituzte alkateak auzoetan; batzuetan hauteskunde bidez eta beste batzuetan familien artean txandakatzen.

Hala, bada, honako hauek izango dira datozen lau urteotarako alkate, auzoka banatuta: Altzagan, Kontxi Kortabarria; Arexolan, Agustin Arrizabalaga;

Arragan, Mikel Kortabarria; Arriolan, Xabier Herrarte; Azkogan, Raket Arriolabengoa; Barajuenen, Lourdes Gardoki; Eguzkierripan, Esteban Altuna; Etxa-

guenen, Julian Bergaretxe; Gantzagan, Miguel Angel Luri; Matxainen, Martin Etxabe; Untzillan, Juan Antonio Aretxaga; Urbarrin, Karmelo Garaitonandia;

*Oleta auzoari  
Diputazioak esaten  
dio noiz egin  
alkatea aldatzeko  
hauteskundeak*

*Nardeagak eta  
Ibargoiak ez dute  
izango auzo  
alkaterik, ez dutelako  
beharririk ikusten*

eta Salgon, Pedro Lizarralde.  
Gogoratu beharra dago Oletan ez dutela alkatea aldatu, bestelako araudi bat dutelako; Arabako Foru Aldundiak agintzen die oletarrei noiz egin behar dituzten hauteskundeak. Era berean, eta azkeneko urteotan egin den bezala, Nardeaga eta Ibargoia kaleek ez dute izango auzo alkaterik, Udalak ez dutelako horretarako beharririk ikusten.



### Iaz baino jende gehiago ibilaldian

Orixol elkarteko kide Unai Kortabarriak kontatu digunez, aurten iaz baino jende gehiagok parte hartu du mendiko ibilaldian. Hain justu, 152 mendizalek. Hori ikusita, datorren urteko proba antolatze-ko animoso daudela esan digu Unai. Lehenengoek eguerdi aldera bukatu zuten proba, ia bost orduz ibili eta gero. Kasualitatez, batek ibilaldiaren izen bera dauka: Aitor Arana; bestea Jabier Arriaran aramaio-arra izan zen. Irtsi ziren azkenak, berriz, 16:30ak aldera sartu ziren azken kontrolera.

### LABUR

#### Nekazari ibilgailuen azterketa teknikoak egingo dute

Udalak jakinarazi digunez, nekazari ibilgailuen azterketa teknikoak egingo dute datorren urriaren 10ean, barikua. Oletan 10:00etan egingo dute eta gainerako auzo guztietako ibilgailuen azterketa Ibarren egingo dute, 11:00etan, Arbel biltegiaren. Aurten 28 euro kostatuko da. 8 urte arteko nekazari ibilgailuek ez dute azterketa teknikorik egin behar; 16 urte artekoek bi urtean behin egin behar dute; eta 16 urtetik gorakoek urtero.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal kirolegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zulako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:10	20:25

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**KZGUNEAN URRIAN**

Datorren hilabeteari begira honako ordutegia izango du KZGuneak: letik 17ra goizean egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara. Eta 20tik 31ra, berriz, arratsalde zabalduko dute, 16:00etatik 20:00etara.

**ARGI MOZTEA**

Aramaio Udalak jakinarazi digunez, urriaren 15ean argindarra moztuko dute herri osoan. Kontua da argindarrarekin lotutako lan bat baino gehiago daudela egiteko. Adibidez, Untzilla auzoan fusible batzuk aldatu egin behar dituzte. Horrekin batera, Gellao auzoan pinudi batzuk bota egin behar dituzte. Eta, era berean, Udalak lanak egin behar dituela aprobetxatu eta, seguruenik, Iberdrolak iaz gertatu zen matxura konpondu egingo du. Hori guztiori batera egin gura dute, auzotarrei ahalik eta eragozpen txikien sortzeko, eta argindarra ahalik eta denbora laburren eteteko. Hala, lehen esan bezala, urriaren 15ean izango da hori. Argi moztea 09:30etik 11:30era egingo dute.

**Konpondu dituzte zeuden ur hornikuntza arazoak**

UBANE MADERA

**Barajuen, Azkoaga, Suña eta Untzilla auzoetarako ur hornikuntza konponduta dago erabat. Joan den uztailean egin zituzten konponketa lanak, eta orain arte, egindakoa zaintzen ibili dira. Hala, emaitzak ikusita, Udaleko teknikariek adierazi digutenez, arazoa konponduta dago.**

Uztailaren amaiera aldera arazoak sortu ziren Barajuen, Azkoaga, Suña eta Untzillako ur hornikuntzarekin. Itxura denez, ez zen ur nahikoa iristen aipatutako auzoetara. Horren aurrean, Udaleko teknikariek egoera aztertu, eta ikusi zuten hodiak batek ihesa zuela. Hain justu ere, ura ur-araztegi bideratzen duen hodi batek zuen ihesa, hodi mehegia zelako, eta, gainera, buxatu egiten zelako. Hala, handik pasatzen zen uraren %90ak errekaratzen egiten zuen ihes, eta auzokideen etxebizitzetara ez zen iristen.

Horren aurrean, Udaleko teknikariek 600 metroko hodia ipini behar izan zuten mendiko bidetik. Lehen zegoen hodia baino lodiagoa eta egokiagoa. Goian

aipatutako moduan, uztailean egin zuten hori; eta orain arte, egindako lana zaintzen ibili dira, eragin-korra den edo ez ikusteko. Bi hilabeteren ostean, ikusi dute hodi berritik ez dela urrik bat ere galitzen, eta Barajuengo, Azkoagako, Suñako eta Untzillako auzotarrek dagoeneko ez dutela ur arazorik.

Hori bai, oraindik ez dituzte lan guztiak bukatu. Udal teknikariek adierazi diguten moduan, uztailean ipinitako hodia mendiko bidetik zehar ipini dute. Orain, hodi hori lurperatzea falta zaie. Baina, lan horiek datorren urtean egingo dituztela iragarri digute.

**URA JAUSTEN**

Bestalde, orain, Azkoagako ur-araztegitik behera, ura dator hormigoizko bidetik. Orain, ur asko iristen dela eta, badirudi gainezka egiten duela. Eta, itxura denez, hormigoizko bide horretan lutzak daude, eta horiek uraren bidea oztopatu egiten dute. Ondorioz, ahalik eta lasterren bide bazterrok garbitu egin beharko dituztela esan digute, ura bere lekutik jaitsi dadin. Dena dela, bien bitartean, eta neguari begira, komeni da inguru horretan kontuz ibiltzea.

*Udaleko teknikariek 600 metroko hodia ipini behar izan zuten mendiko bidetik*

*Lanak bukatu barik daude; mendiko bidetik doan hodia lurperatu egin behar dute*



**Azkenean, hasi dituzte Santa Ana ermitako lanak**

UBANE MADERA

**Bi urte baino gehiago itxaroten egon eta gero, azkenean, hasi dituzte Santa Ana ermitako eta parkeko hormak konpontzeko lanak. Aurrera begira, Gantzaga errekan ere antzerako lanak egingo dituzte, baina oraindik ez dute datarik zehaztu. Gasteizko Mendigorri enpresa dabil lanok egiten.**

Oraingo astearen hasieran makinak ekarri eta berehala hasi dira lanean Mendigorri enpresakoak. Oraingo, Santa Ana ermitan eta haren kanpoko parkean dabil-tza, Aramaio errekan albo bietako harri-lubetak konpontzen. Helburua da erreka bazterrak sendotzea, zati batzuetan horma zatiak jausita zeuden-eta. Hala, Mendigorri enpresako langileek adierazi digutenez, besteak beste, burdinazko habeak sartu


behar dituzte aipatutako horma horiek sendotzeko.

Lanok egiteko, hondeatzeko makina errekaraino sartu behar dute, eta langileek kontatu digute hori egiteko erreka bazterrean zegoen arbola bat handik atera behar izan dutela. Baina, arbola bota beharrean, parkearen beste leku batean landatu dutela.

**GERO, GANTZAGAN**

Santa Ana ermita inguruko lanean gain, Udalak jakinarazi digu Gantzaga errekan bazterrean ere antzerako lanak egin behar dutela. Hain justu ere, Ibergio inguruan, Lurgorri pasealekuan egin behar dute beste lan hori.

Makina bat atzerapen izan ditu harri-lubetak konpontzeko proiektuak. 1999an aurkeztu zuten aurreneko aldiz, baina, zenbait arazoik eraginda, behin baino gehiagotan atzeratu egin behar izan dute, eta orain arte ez dira hasi.



**Diputazioaren ikasgelan ikasten**

Iragarritako moduan, oraingo astean pare bat egunez *Araba, gure ondarea* izeneko kanpainako ikasgela mugikorra Aramaion egon da. Egunetako batean Bañerako parkean egon da, eta bestean, Azkoaga auzoan. Argazkian ikusten duzuen moduan, aurreneko egunean, behintzat, arrakasta dezente izan zuen Arabako Foru Aldundiak abiarazitako ekimenak. Eskola orduak bukatu ostean, makina bat ume ibili ziren autobusean kuxkuxean. Hala, Arabako ondarearen, azpiegitura hidraulikoen, errepideen... gainean apur bat gehiago ikasteko aukera izan zuten. Horretarako, ordenadoreak, mapak, eta pantaila erraldoia erabiltzeko aukera izan zuten. Jakina, gaztetxoez gain, nagusiagoak ere ibili ziren ikasgela mugikorrean.

ERRETRATU ZAHARRA

# Maritxuren lehengo dizipuluak

**M**aritzu Kajoi jaia gazte samarra da, baina badira egun horretako argazki batzuk antzinakoak barik zaharrak direla. Hala, horrelako bat hartu, eta argazki zaharraren tartera ekarri dugu orain, Maritzu Kajoi den honetan.

1988koa da irudiotako argazkia. Maritzu Kajoi gauean ateratakoa, gure berriemaileak kontatu digunez; izan ere, sasoi hartan afaria egiten zuen jendeak, eta ez bazkaria, orain bezala. Hain justu ere, lana bukatu ostean hasten ziren Maritzu Kajoi eguna ospatzen. Hori bai, lehen eta orain, bietan, afariok egiteko herriko jatetxeak bete-bete eginda egoten ziren, eta argazkiko gure lagunek urtero Bergarako Antxoní jatetxera joan behar izaten zuten.

Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik eskumara: Iban Arriaran, Imanol Luengo, Santi Rodriguez, *Poti*, *Purroi* eta Txus Uribarren. Eta beheko hirukotea honakoa da, ezkerretik eskumara:



Alex Martiarena, German Moreno eta Rafa Luengo.

Lehengo eta oraingo Maritzu jaia konparatzen, gure berriemaileak esan digu orduko arratsaldeko txikiñteoa oraingoa baino hobea zela, jende gehiago ibiltzen zela. Eta jendeak erabiltzen zituen etiketa-jantziak ez

zirela ezkontzetara eramaten ziren horiek (gaur egun bezala), aitarenak edo aitonarenak baizik. Hori bai, jende aldetik oraingo antzera ibiltzen ei zen herria: autobuskadak etortzen ziren Maritzu Kajoi gauerako. Eta parranda eta festarako gogoia ere antzerakoa lehen eta orain.


Ikusten denez, beraz, lehen eta orain, Maritzu bizi-bizi. Eta hala jarrai dezala, *in secula seculorum*.

**Argazkia:** Maritzu Kajoi, 25 urte liburu  
**Informazioa:** Rafa Luengo  
**Urtea:** 1988


## NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

### Fagor Arrasate, handitzen

**A**rrasate, Kooperatiba baten ibilbidea liburuan azaltzen den beste argazki bati heldu diogu. Fagor Arrasate lantegia merkatuaren beharrei erantzuteko txiki geratu zen, eta lantegia handitzeko lanak hasi zituzten. 70eko hamarkada aldatetaz jositako hamarkada izan zen. Kooperatibak barne arazo handiak izan zituen, eta soziopolitiko ere garai latzak izan ziren.



≈ 1972 1972an, Fagor Arrasate lantegia handitzeaz gain, Markinako lantegia eraikitze-ko lanak ere hasi zituzten.



2003 Azken urteotan Fagor Arrasatek sekulako hazkundea izan du; Markinan dagoen lantegian, berriz, inbertsio handiak egin dituzte.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**HIES**  
**BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**UGARTE**

**Industria hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.  
Tel.: 943 -71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50





San Juan 1 A,  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa:  
943 76 08 04

# UGARTE

## AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



# Oihana


## DEKORAZIOA



Arrasate pasealekua 4 ARRASATE Tel.: 943 77 14 56

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

